Zapaburua gutxinaka-gutxinaka aldatzen da igela bihurtu arte. Aldaketa honi metamorfosia deitzen zaio. Lehenengo, isatsa hasten den bi aldeetan, atzeko hankak ateratzen zaizkio. Gero, aurreko hankak agertzen dira eta bukaeran, isatsa desagertzen da. Aldi berean, ur azpian arnasa hartzeko zituen zakatzak desagertzen dira eta birikak osatzen dira. Handik aurrera, uretatik kanpo bizi daiteke.

Prozesu hau egiten duten animaliei anfibioak deitzen zaie.

- **Zer esan nahi du "igelaren metamorfosiak"?**

  A. Zapaburuak egiten dituen aldaketa multzoa.

  B. Zapaburu bihurtzeko aldaketa multzoa.

  C. Hanken aldaketa.

  D. Isatsaren aldaketa.

  E. Zakatzen aldaketa.

- **Zein ordenean dira aldaketak?**

  A. Aurreko hankak atera- atzeko hankak atera- isatsa desagertu.

  B. Atzeko hankak atera- aurreko hankak atera- isatsa desagertu.

  C. Isatsa desagertu- aurreko hankak atera- atzeko hankak atera.

  D. Isatsa desagertu- atzeko hankak atera- aurreko hankak atera.

  E. Zakatzak atera- isatsa desagertu- aurreko hankak atera.

- **Igel batek lehorrean, uretatik kanpo, arnasa har dezake. Zergatik?**

  A. Lau hanka dituelako.

  B. Isatsa duelako.

  C. Birikak eta zakatzak dituelako.

  D. Zakatzak dituelako.

  E. Birikak dituelako.

- **Zein izenburu jarriko zenioke testu honi?**

  A. Igelen hankak.

  B. Animalien aldaketak.

  C. Uretako animaliak.

  D. Anfibioen metamorfosia.

  E. Narrastien metamorfosia.

LIVEWORKSHEETS